



Antxiñako fotografixia



Orain dala 46 urteko Santa Ageda bezperia

Santa Ageda inguruan kantuan eta eskian ibiltia Euskal Herriko ohituria izan ei da aspalditxotik. Oñatin be, kinttuak ezpaziran, herriko beste mutil-kuadrilla batzuk urteten ebein kalerik-kale eta auzorik-auzo otsaillaren lehenengo egunetan. Batzutan hillaren 4an, Santa Ageda bezperan; beste batzutan, barriz, Santa Ageda eguna pasauta tokaiten zan hurrengo domekan. Gerraosteko urterik latzenetan be eutsi egin xakon Siziliako santa ezagun honen alabantzak euskaraz kantaitteko ohitura zahar honi.

Argazki hau 1949ko otsaillaren 4an atarata dago, eta urte haretako Santa Ageda-batzailliak "Acción Católica"ko gaztiak izan ziran. Goitik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittugu:

Atzeko illaran: **Pablo Agirrezabal, Euxebio Anduaga Xilberiona, Agustin Zarketa, Luis Beitia Kastillona, Joxe Arregi Santa Mariñakua, Joxe Luis Rodriguez Inprentakua** eta **Iñaxio Urtzelai Kaiona**.

Erdiko illaran: **Anjel Egaña Kallesena, Joxe Anduaga San Antue kalekua, Roman Biain Perratzailliana, Felix Urtzelai Kaiona, Jexux Mendizabal** eta soiñujolia, **Felix Ugarte Gaiñena**.

Barrenian: **Joxe Mari Onraitia, Antonio Ugarte Olaldekoa** eta **Joxe Mari Aranburu Kurtzetxokua**.

J.E.

Fotografixia eta argibidiak Joxe Arregirenak dira.

BELAR Irrati-Telebista S.A.

Elektrizitate instalakuntzak
Atezain automatikoak
Elektrotresnen salmenta eta konponketa
TB-HIFI

Olakua kalea, 1-C. Tfnoa: 78 06 57 OÑATI

JON

ARGAZKIGINTZA

Kale Barria, 28 behea
 Tfnoa: 78 24 81 OÑATI